ek!
eta kitto!
euskara elkartea
2026ko azaroak 13 · 1416 zenbakia

# HERRIAK OZEN DIO...






irazabal
HORTZ KLINIKA

# Irribarreetan adituak,

etor zaitez
gu ezagutzera

**HELBIDE BERRIA!**

**Blas Etxebarria 3**
20600 Eibar




943 20 85 52

@clinicairazabal

clinicairazabal.com

RPS 36/21

# Jarrai iezaguzu!




Etxebizitza eskubidea aldarrikatzeko, espekulazioari aurre egiteko eta etxebizitza negozioa ez, eskubidea izan dadila eskatzeko atera ziren eguaztenean Eibarko kaleetara Deba bailarako ehunka lagun.

**BIDEOAK** YouTuben ikusgai

**www.etakitto.eus**

eta kitto! euskara elkartea

**ARGITARATZAILEA**
...eta kitto! Euskara Elkartea
**HELBIDEA**
Urkizu, 11 · 20600 Eibar
**TELEFONOAK**
943 20 67 76 / 943 20 09 18
**ASTEKARIAREN E-MAILAK**
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus
aldizkaria@etakitto.eus
**ELKARTEAREN E-MAILAK**
elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA**
Ana Aizpurua, Naia Aizpurua, Irati Alvarez, Ekhi Belar, Ander Fernandez, Silbia Hernandez, Irune Jaio, Yanire Sagredo,

**ADMINISTRAZIOA**
Naiara Esnaola
**KOORDINATZAILEA**
Ana Aizpurua
**ERREDAKZIO-BURUA**
Silbia Hernandez
**DISEINU ARLOA**
Irune Jaio
**JATORRIZKO DISEINUA**
Maku Oruezabal
**HIZKUNTZA ARDURA**
Maider Aranberri
**PUBLIZITATEA**
Ander Fernandez
**TELEFONOA**
943 20 67 76

**AZALA**
Naia Aizpurua
**BANAKETA-ARDURA**
Idoia Labado
**TIRADA**
7.800 ale
**INPRIMATEGIA**
GERTU koop. (Oñati)
**COPYRIGHT-A**
...eta kitto!
**LEGE-GORDAILUA**
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

Eibarko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak lagundutako aldizkaria

EIBAR Udala | Ayuntamiento

GIPUZKOA Foru Aldundia
Babestutako hedabidea

# Eskutitzak

## Agur eta ohore, Jose Agustin

Urriaren 27an laga gintuen Jose Agustin Larrañagak, 92 urterekin. Eibar Rebistak azken urteotan izan duen kolaboratzaile finenetakoak, bere lanean ohituta gintuen bezala, isil-isilik esan digu agur. Hala ere, kasualitateak zer diren, urtea amaitu aurretik kaleratuko dugun alean ere bere kolaborazioa izango dugu, aurretik entregatu baitzigun sasoiz prestatutakoa.

Gizon zintzoa izan dugu elkarlagun, gure eskakizunei erantzuteko prest, kolaborazioak neurrikoak ziren galdetzen zuten horietakoa, lanak entregatzerako ezin puntualago beti... Azken batean, edizio lanetarako zenbat eta erraztasun handiena eskaintzen dituzten horietakoa. Hemendik aurrera, gure herriko pilota munduko protagonisten arlo hori umezurtz geratuko zaigu.

Hain gurea den kirol modalitate horren inguruan, Eibarri dagokionez batez ere, Jose Agustinek bildu izan dituen tamainako daturik beste inon ez delako izango. Lan horren fruitu ditugu Eibarko Txikito handiaren eta Miguel Gallastegiren inguruan berak burututako liburuak. Hortik aparte, eta gure herriaren alde egindako lanaren erakusgarri, ezin dugu ahaztu Larrañaga Eibarko Artisten Elkarteko presidente ere izan zela orain dela ez askora arte, kultur arloari lotutako kezkek zenbateraino eragiten zioten erakusle.

Bide batez, eta 2027an Eibar Rebistak bere 75. Urteurrena ospatuko duela aprobetxatuz, gure eskerrik beroenak hiruhilabetekarian parte hartzen duten kolaboratzaile guztientzat. Jose Agustin Larrañagaren bidelagun izan duzuenoi esker heldu garelako honaino.

**Eibar Rebistako Erredakzio Kontseilua**

# Hortik esanak

## Edozer

Whatsappak gauza onen batzuk ekarriko zituen, baina niri eztabaidak gehitu dizkit, eta ez daukat bakoitzari behar duen denbora eskaintzeko astirik. Urtean bi edo hiru aldiz elkartzen garen talde bat badut eta lehengoan Santiago Abascal La Revuelta-n izango zelako eztabaidan hasi ziren lagunak. Ez lioketela joaten utzi behar, ez omen da justua Hauteskunde Batzordeak halakoak inposatzea... Erantzuteko gogoa banuen, baina astirik ez. Eutsi egin nuen ezer esan gabe, harik eta batek esan zuen arte telebista publikoak iritzi guztiei egin behar diela lekua. «Ez», idatzi nuen, eta, astirik izan ez arren, argudiatu egin behar izan nuen: «Telebista publikoak ez dio faxismoari lekurik egin behar. Ez dira iritziak bakarrik. Gure askatasunaren kontra ari dira etengabe». Gauza da denbora daramagula telebista publikoan astakeriak entzuten denon telebista izan behar duenaren zera horrekin. Agertzen dira faxistak homosexualez edozer esaten, genero indarkeria ukatzen, arrazakeria ezkutatu gabe atzerritarren kontra... eta guk, beste guztion askatasunaren kontrako ekintzak ikusi beharrean, iritziak ikusten ditugu.

Barkatuko didazue, baina gauza bat da iritzi guztiak onartzea eta beste bat, oso desberdina, edozer onartzea. Eta nik benetan pentsatzen dut guztionak diren hedabideek ez lioketela faxismoari lekurik egin behar. Ez hemen ez Espainian.

**Onintza Enbeita (BERRIA)**

# Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**PUSKETA.** ➜ Zati txikia. “Geu giñan lekuraiñok etorri zan bonbian pusketa bat”.
**PUSPILLO.** ➜ Baba, erretzerakoan irteten duena. Gaztelerazko ‘ampolla’. “Puspilluak urten desta ezpanian, hotzikaria ezkero”.
Burbuilua. Gaztelerazko ‘burbuja, pompa’. “Puspilluak egitten zan lasto bategaz”.




**Idurre Iriondo**

## Farmaziak

**BARIXAKUA 13**
**EGUNEZ | Barandela** (Ziriako Agirre, 4)

**ZAPATUA 14**
**EGUNEZ | Lekunberri** (Isasi, 31)

**DOMEKA 15**
**EGUNEZ | Castaño** (J. Etxeberria, 7)

**ASTELEHENA 16**
**EGUNEZ | Elortza** (Juan Gisasola, 18)

**MARTITZENA 17**
**EGUNEZ | Zulueta** (San Agustin, 5)

**EGUAZTENA 18**
**EGUNEZ | Mendinueta** (Urkizu, 6)

**EGUENA 19**
**EGUNEZ | Azkue** (T. Etxebarria, 4)

**BARIXAKUA 20**
**EGUNEZ | Zulueta** (San Agustin, 5)

**GAUEZ BETI**, 2026an,
**Elortza** (J. Gisasola, 18)

## Telefono jakingarriak

| | |
|---|---|
| SOS deiak | 112 |
| Pegora | 010 |
| Udaletxea | 943 70 84 00 |
| Portalea | 943 70 84 39 |
| Udaltzaingoa | 943 70 84 24 |
| Mankomunitatea | 943 70 07 99 |
| Debegesa | 943 82 01 10 |
| KIUB | 943 20 38 43 |
| Kirol Patronatoa | 943 20 32 40 |
| Epaitegia | 943 03 34 00 |
| Iberdrola | 900 17 11 71 |
| Naturgas | 902 12 34 56 |
| DYA Larrialdiak | 943 46 46 22 |
| Gurutze Gorria | 943 22 22 22 |
| Eibar Ospitalea | 943 03 29 00 |
| Mendaro ospitala | 943 03 28 00 |
| Anbulategia | 943 03 25 00 |
| Torrekua | 943 03 26 50 |
| Errepideak | 902 11 20 88 |
| Ertzaintza | 943 53 17 00 |
| Eusko Tren | 944 33 33 33 |
| Lurraldebus | 900 30 03 40 |
| Pesa | 900 12 14 00 |
| Taxiak | 943 20 30 71 / 943 20 13 25 |
| Andretxea | 943 54 39 38 |
| Alkohol. Anon. | 629 14 18 74 |
| Al-Anon / Alateen | 650 26 59 63 |
| Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak) | 699 37 75 20 |

## Hildakoak

- **Maribel Azparren Ziaran.** 72 urte. 2026-11-04.
- **Arrate Arizmendi Murgiondo.** 70 urte. 2026-11-04.
- **Ubaldo Ortega de la Fuente.** 92 urte. 2026-11-05.
- **Jose Vicente Urizarbarrena Elkoro.** 79 urte. 2026-11-06.
- **Mª Pilar Garzaron Urrutia.** 96 urte. 2026-11-06.
- **Rafael Gil Arrea. 66 urte.** 2026-11-07.
- **Carlos de Marcos Fernández.** 92 urte. 2026-11-09.
- **Martin Acha Txurruka. 90 urte.** 2026-11-09.
- **Maria Alberdi Alberdi. 98 urte.** 2026-11-09.
- **Josu Garate Sanagustinetxeberria.** 65 urte. 2026-11-10.
- **Margarita Olañeta Izagirre.** 95 urte. 2026-11-10.



# Baliabideak eta epeak zehazteko eskatu diote Udalari etxegabetasunari aurre egiteko

**S.H.** END plataformak, *Aterpe bat, eskubide bat* kanpainaren sustatzaileak, Eibarko Udalari eskatu dio zehazteko zer erantzun emango dien kalean edo bizigarritasun-baldintza eskaseko etxebizitzetan bizi diren pertsonei. Zehazki, zenbat plaza eskainiko dituen, zer baliabiderekin, eta zer epetan.

Plataformaren aldarrikapena 2024ko apirilean hasi zen, Karmeldarren egoitzako neguko harrera-zerbitzua itxi eta Udalak eskualdeko baliabide hori hartzeari uko egin zionean. Ordutik, urte osoan funtzionatuko duen udal-harrera sistema iraunkorra eskatzen du plataformak.

2026ko ekainean, 3.040 sinaduraren babesa duen herri-mozioa aurkeztu zuen plataformak, eta uztailean udaleko lau alderdiei elkarrizketak proposatu zizkien, akordio bat lortzeko. Irailean hasi ziren bilerak: proposamen bateratua lantzeko aukerak alderdi guztien artean interesa piztu du, baina ENDk ohartarazi du oraindik ez dagoela akordiorik, ezta konpromiso zehatzik ere.

### 40 pertsona inguru, bizitegi-bazterketa egoeran

ENDren kalkuluen arabera, gaur egun 40 pertsona inguru daude Eibarren bizitegi-bazterketa egoeran: kalean, bizigarritasun-baldintza eskaseko etxebizitzetan edo bestelako bizitoki desegokietan. Plataformaren arabera, Eibarri gehienez 55 pertsona artatzeko erantzukizuna legokioke. Horri erantzuteko, hainbat baliabide uztartzea proposatzen du: urte osoan erabilgarri egongo den gaueko harrera, gizarte-laguntzarako eguneko zentroa eta gizarteratze-prozesuak ahalbidetuko dituzten etxebizitzak edo bestelako bizitoki-aukerak.

Plataformak ez du eskatzen 55 plaza berehala martxan jartzea, baizik eta baliabideak pixkanaka ezartzea, horretarako epe eta konpromiso argiak zehaztuta. ENDk azpimarratu du udalerri bakoitzak etxerik gabeko pertsonen arretan dagokion erantzukizuna hartu behar duela, eta Debabarreneko gainerako udalek ere irizpide berari jarraitu behar diotela.

## Eukalipto-sail bat bertako baso bihurtzeko proiektua ezagutzeko irteera egingo da azaroaren 22an

**S.H.** Eibarko Baso Biziak eta Lurgaia Fundazioak irteera didaktikoa antolatu dute azaroaren 22rako, Lurgaiak Eibarren erosi berri duen baso-lurra ezagutzeko. Bisita 10:00etan hasiko da, Txontako aparkalekuan (kantxaren ondoan), eta eukalipto-sail bat bertako baso bihurtzeko proiektua izango dute ardatz.

Irteeran, lursailaren egungo egoera ezagutu eta bertako basoa berreskuratzeko aukerak aztertuko dituzte parte-hartzaileek. Antolatzaileek azaldu dutenez, bisitan proiektua aurkeztuko dute, eta eukaliptosail bat bertako espezieez osatutako baso anitz bihurtzeko erronkak eta aukerak landuko dituzte.

Ekimena baso autoktonoak berreskuratzeko eta leheneratze ekologikoa sustatzeko helburuaren barruan kokatu dute Eibarko Baso Biziak eta Lurgaia Fundazioak. Halaber, natura-ondarea zaintzeko erakundeen eta herritarren arteko elkarlanaren garrantzia azpimarratu dute.

Parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute, eibarkobasobiziak@gmail.com helbidera idatzita.






# Battia, Inspectrail eta Trust Eibarres enpresak saritu dituzte

**S.H.** Battiak *Startup eta Enpresa Proiektuen* kategorian jaso du saria, ibilgailu elektrikoen baterietatik lehengai kritikoak modu seguru eta jasangarrian berreskuratzeko garatu duen teknologiagatik. Inspectrail, berriz, *Enpresa Berritzailea*-ren kategorian saritu dute, trenbide-azpiegiturak digitalizatzeko eta modu adimendunean ikuskatzeko proposamenagatik (12.000 euro jasoko ditu bakoitzak). Battiak, gainera, Eibarko Enpresa Saria ere irabazi du (12.000 euro eta 10.000 eurora arteko bonu teknologikoa). Eta Trust Eibarres-ak ere jaso du aitortza, bere mendeurrenean. Iñaki Goenaga saria eman diote, egindako ibilbideagatik eta Eibarko enpresen ezaugarritzat jotzen dituzten balioak ordezkatzeagatik. Sariak aurreko astean banatu zituzten Eibarren, Teknikerren.





# Minbiziaren Aurka Gipuzkoan elkarteak hamargarren urteurrena ospatuko du

**S.H.** Minbiziaren Aurka Gipuzkoan Elkarteak Debabarreneko egoitzaren hamargarren urteurrena ospatuko du azaroaren 19an (eguena), Eibarren, herritar guztiei irekitako jardunaldi batekin.

Arratsaldean, 15:30etik 18:30era, Ardantza kaleko 11. zenbakian dagoen egoitzak ateak zabalduko ditu, elkartearen lana eta minbizia duten pertsonei zein haien senideei eskaintzen dizkien doako zerbitzuak ezagutarazteko. Herritar guztientzat zabalik egingo dute jardunaldia, eta ez da izena eman behar.

Ondoren, 18:30etik 19:30era, *Osasuna egunero eraikitzen da* hitzaldia eskainiko dute elkarteko hiru profesionalek: Jon Madinabeitia kirol-hezitzaile fisikoak, Lucas Hoskin nutrizionistak eta Maider Sierra osasunaren sustapeneko psikologoak.

Hitzaldia doakoa da, baina aurrez izena eman behar da 943 45 77 22 telefonoan.

## Enpresa berriak sortzeko aholkularitza eta 2.000 euroko dirulaguntzak emango dituzte

**S.H.** Debegesak eta Lanbidek programa berria jarri dute abian Debabarrenean negozio bat sortu nahi dutenei laguntzeko. Ekimenak gutxienez hiru hilabeteko aholkularitza eta tutoretza pertsonalizatua eskainiko ditu, baita 2.000 euroko dirulaguntza ere, gazte eta emakumeentzat % 15eko gehigarriarekin. Langabeei edo gehienez % 30eko lanaldia dutenei zuzenduta dago. Eskaerak azaroaren 17ko 12:00ak arte aurkeztu ahal izango dira Debegesan.





# Gidabaimena euskaraz ateratzeagatik saria jaso du Koldo Edorta Carranzak

**S.H.** Koldo Edorta Carranzak 100 euroko erosketa-bonua jaso du, gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz egiteagatik. Saria Eibarko Udaleko Euskara Sailak eta Eibarren Akebai plataformak banatu dute, Eibarko Dendarien Elkartearekin elkarlanean.

Ekimenaren helburua da gazteen artean gidabaimena euskaraz ateratzea sustatzea eta, horrela, euskararen erabilera eguneroko bizitzako esparruetara zabaltzea. Horretarako, *Gidabaimena Euskaraz* egitasmoak azterketa teorikoa prestatzeko euskarazko materialak eta baliabide digitalak eskaintzen ditu. Eusko Jaurlaritzak babesten duen egitasmoa Euskadiko Autoeskolen Federazioak koordinatzen du.

Argazkian, saritutako gaztea eta Aiora Arrieta, Eibarko Euskara Saileko arduradun politikoa.



## Urteetan 'Eibar' aldizkaria zuzendu eta koordinatu zuen Margari Olañeta hil da

**S.H.** Martitzenean (azaroak 10) hil zen Margarita Olañeta Izagirre, *Eibar* aldizkariko zuzendari eta koordinatzailea izandakoa, 95 urte zituela.

Ermuko Erdiko kalean, Pedromarianeko etxean 1931n jaioa, familia osoak aitita Pedro Mariaren gomutazko goitizen hori jaso zuen. Ermuko alkate izan zen Ignacio Olañeta eta Rosario Izagirreren bost seme-alabetatik nagusiena izan zen bera. Artean neskatotxoa zela, aita nola espetxeratu, desagertu eta hil zen ezagutu zuen. Bilbon "Huérfanas de guerra" ikastetxean ikasi zuen, 6 urtetik 14 urtera bitartean. 25 urterekin Eibarrera ezkondu zen Jose Mari Kruzetarekin, eta lau seme-alaba izan zituzten.

Sinesmen handiko emakumea, Vaticanoko II. kontzilioaren joera teologikoetan sakon hausnartutakoa zen, eta katekista ibilitakoa. Senarraren heriotza eta gero, Eibar hiruhilabetekariaren zuzendari eta koordinatzaile lanetan jardun zuen 14 urtez, 2002tik 2016ra bitartean.

Horrez gain, sasoi batean, SER kateari lotuta zegoen Radio Eibar irratiaren tertulietan parte hartu zuen. Goian bego.

## Belaunaldien arteko moda desfilea egingo dute gaur arratsaldean Untzagan

**S.H.** Belaunaldien arteko moda desfilea egingo dute gaur Untzaga gizarte zentroan (2. solairuan), 18:00etan. Beittu, Kopiña, Glow Up, Helmet House eta Roca dendetako arropak eta osagarriak erakutsiko dituzte modelo gazteek, "eta ez horren gazteek". Ekimenak 20 edizio ditu atzean.





## Isabel Rodríguez ministroa PSE-EEren ekitaldian

**S.H.** Isabel Rodríguez Espainiako Etxebizitza eta Hiri Agenda ministroak PSE-EEk antolatutako ekitaldian parte hartuko du azaroaren 18an, asteazkenean, Eibarren. Hitzordua 18:30ean izango da, Errebal Plazako aretoetako batean. Ministroarekin batera, Eneko Andueza PSE-EEko idazkari nagusiak, Rafaela Romero Gipuzkoako Kongresurako hautagaiak eta Jon Iraola Eibarko alkateak hartuko dute parte.



## EH Bilduk gaur hasiko du kanpaina Errebalen

**S.H.** EH Bilduk Hauteskunde Orokorretako kanpainaren hasierako ekitaldia egingo du gaur (barixakua) Eibarren, 19:00etan Errebalen, eta lau gonbidatuk hartuko dute parte: Oskar Matute, Oihana Etxebarrieta, Gorka Elejabarrieta eta Maddalen Iriarte. Eibarko EH Bildutik berriz, Iker Eizagirre izango da hizlari. Herritar guztiak daude gonbidatuta.

# A11 GREBA IRUDI-TAN
















ARGAZKI GUZTIAK



Ehunka herritar mobilizatu ziren azaroaren 11n Eibarren, Hego Euskal Herriko greba orokorraren baitan, etxebizitza eskubidea aldarrikatzeko eta espekulazioaren aurka egiteko. Debabarreneko eta Debagoieneko bi zutabeak Untzaga plazan elkartu ziren, eta gazteen parte-hartzea nabarmena izan zen. Manifestazioaren ostean, Etxebizitza Sindikatu Sozialistak, ELAk eta LABek grebaren aldarrikapenak irakurri zituzten, eta etxebizitzaren arazoari aurre egiteko neurriak eta mobilizazioarekin jarraitzeko beharra nabarmendu zuten.



# ATZOKO ESKUETATIK BIHARKOETARA: **MUTRIKUKO GAZTETXEA, MENDE LAURDENA BIZIRIK**

MUTRIKUKO GAZTETXEAK 25 URTE BETE DITU, ETA AZAROAREN 21EAN OSPATUKO DU URTEURRENA, EGUN OSOKO EGITARAUAREKIN, BAZKARIA, MUSIKA ETA BELAUNALDIEN ARTEKO TOPAKETA UZTARTUTA.

Mende laurdena igaro da Mutrikuko Gaztetxeak bere ibilbidea hasi zuenetik. 25 urte hauetan, belaunaldi ugarik hartu dute parte proiektuari eusten eta, antolatzaileen esanetan, urteurrena ez da ospatzeko aukera hutsa: atzera begiratu eta egindako bidea aitortzeko unea ere bada. «Gogoratzeko gu hemen gaudela gure aurretik beste batzuk egon zirelako», azaldu dute. Horregatik, azaroaren 21erako prestatutako jaialdiarekin belaunaldi ezberdinak elkartu eta gazte berrien ilusioa piztu nahi dute.

Gaztetxea herriko gazteen topagune eta antolakuntzarako espazio izan da urteotan. Baina haren jarduna ez da lau hormen barrura mugatu: kultur ekimenak, jarduera sozialak eta proposamen politikoak antolatu ditu, Mutrikuko herri bizitzan bere lekua eginez. Antolatzaileek herritarren gertutasuna nabarmendu dute, eta orain arte izandako bideari segida emateko nahia adierazi dute. Ospakizunaren bidez, gaztetxeek herrietan duten garrantzia erakutsi nahi dute, aisialdirako eskaintza egiteaz harago.

Urteurrenaren harira, azaroan zehar hainbat ekitaldi prestatu dituzte. Horien artean daude Manex Astigarraga, Maria Blanco eta Julen Pagazaurtunduaren bakarrizketak, ostiralean gaztetxean egingo direnak, eta iganderako iragarritako Hau Zulo Hontan dantza ikuskizuna. Nolanahi ere, ospakizun nagusia azaroaren 21ean, zapatuan, egingo dute, «25 urte ezto mugaik!» lelopean.

**21ean, egun osoko egitaraua**

Egun osoko egitaraua 13:00etan hasiko da, txupinazoarekin eta trikipoteoarekin. Ondoren, 15:00etan, bazkaria egingo dute, eta 17:00etan elektrotxarangaren txanda izango da. Jaialdi nagusia Egañako frontoian izango da: ateak 18:30ean irekiko dituzte eta kontzertuak 19:00etan hasiko dira. Chala Rasta, Xiberoots, Tapia eta Leturia Band eta Kumbialari igoko dira oholtzara, eta, zuzenekoen ondoren, DJ Farruktas arduratuko da festa luzatzeaz.




Egitaraua jasotzen duen kartela.

Kontzertuetarako sarrerak 18 euroan daude salgai, eta bazkaria eta kontzertuak biltzen dituen txartelak 30 euro balio du. Loretxu, Txirlatxo eta Zubiaram tabernetan eros daitezke, baita 688 606 657 telefono zenbakiaren edo @mutrikukogaztetxia Instagram kontuaren bidez ere. Horrez gain, sarrerak online erosteko aukera ere badago, gaztetxearen sare sozialetan eskuragarri dagoen estekaren bidez.

db!

## DEBABARRENEAN ZEHAR




Aste honetan, Mutrikuko Gaztetxearen ateak zabalduko ditugu Debabarrenean Zehar saioan. Gaztetxeko kideen eskutik, bertako txokoak, historia, antolakuntza eta egiten dituzten ekimenak ezagutuko ditugu. Urte hauetan bizitako anekdotak eta bitxikeriak ere izango ditugu hizpide, umorea alde batera utzi gabe!

## ALBISTEAK

Ermua, Eibar, Soraluze eta Debako udalek eremu tentsionatu izendatzeko eskaera egin dute. Lehenengo hirurek —Eibarrek izan ezik— udalerri osoa izendatzea eskatu dute; Eibarrek, berriz, Azitain, Urkizu eta Txonta auzoak proposatu ditu.






## Azaroak 13

| | | | |
|---|---|---|---|
| ANTZER. | **'EL HIJO DE LA CÓMICA'** | 20:30 | ANTZOKIA (ERMUA) |
| MUSIKA | **LAGUNAK SESSIONS** BLUES HOTSAK | 19:00 | COLISEO (EIBAR) |
| TOPAK. | **DASTAKETA ETA BERBALAGUN ESPAZIOAK** | 17:00 | PORTALEA 3. SOLAIRUA (EIBAR) |
| TERTUL. | **7. ARTEARI BURUZ** | 18:30 | EMAKUMEEN ETXEA (ELGOIBAR) |
| MUSIKA | **MARACA DIABLO.** GARAROCK UDAZKENEAN | 22:00 | SAN AGUSTIN (MENDARO) |
| HITZAL. | **SEXU INDUSTRIA.** ITAIA | 18:00 | KULTUR ELKARTEA (DEBA) |
| IPUINA | **'80 AMANDRE'** | 20:00 | ISPILUEN GELA (DEBA) |

## Azaroak 14

| | | | |
|---|---|---|---|
| AZOKA. | **XXXVI. SAN MARTIN AZOKA** | 11:00 | HERRIAN ZEHAR (ERMUA) |
| MARRAZ. | **JAM MARRAZKETA** | 19:00 | IMP (EIBAR) |
| UMORE | **DESPOTORRE.** ANE LINDANE ETA RAQUEL TORRES | 19:00 | IMP (EIBAR) |
| MAGIA. | **MIRARIAK: MAGIA TAILERRA** | 10:00 | AITA AGIRRE (ELGOIBAR) |
| JAIA. | **MAGOSTO JAIA** | 11:30 | MAALA (ELGOIBAR) |
| MENDIA | **KARAKATERA IGOERA** | 11:00 | KALEGOEN (ELGOIBAR) |
| AZOKA. | **GAZTAÑERRE EGUNA** | 10:00 | ERREGETXEA (SORALUZE) |
| BISITA GIDATUA | **LASTUR FAMILIAN** | 11:00 | SAN NIKOLAS (ITZIAR) |

## Azaroak 15

| | | | |
|---|---|---|---|
| LIBURUA | **HERBA VITAE** | 12:30 | IMP (EIBAR) |
| TAILER. | **MIKROMAGIA** | 10:00 | AITA AGIRRE (ELGOIBAR) |
| ANTZER. | **GOAZEN 13KO LANTALDEA** | 17:00 | ISPILUEN GELA (DEBA) |
| ANTZER. | **ERRESINOLAREN KANTUA** | 17:30 | ISPILUEN GELA (DEBA) |



ENEKO RAMON

# Beldurra presidente

Azaroaren 29ra arte gauza askori buruz hitz egingo dugu: etxebizitzaz, pentsioez, immigrazioaz, Euskadiz, Sanchezez, eskuin muturraz, trenez, segurtasunaz edo autogobernuaz. Gaiak desberdinak dira, eta mezu bera dago atzean: **kontuz besteek irabazten badute.**

Kanpaina ez da telebistako eztabaidan bakarrik gertatzen. Instagramen agertzen zaigu, albiste baten titularrean, tabernako alboko mahaian edo kuadrillako batek bidalitako TikTok batean.

Mezu horiek funtzionatzeko mehatxu bat behar dute: galtzeko zerbait, saihestu beharreko egoera bat edo errudun bat. Horregatik, kanpaina bakoitzak bere munstroa eraikitzen du.Batzuentzat PP eta Vox dira; beste batzuentzat Sanchez. Batzuentzat immigrazioa da arazoa, beste batzuentzat Euskadik erabakitzeko gaitasuna galtzea, eskubideetan atzera egitea edo ekonomiak okerrera egitea. Munstroa aldatzen da, baina logika ez horrenbeste.

Horregatik funtzionatzen du hain ondo beldurrak politikan. Ez da emozio sofistikatua. Kale ilun batean zarata bat entzuten dugunean bezala, lehenengo erreakzioa ez da egoera lasai aztertzea, baizik eta adi jartzea. Gero etorriko dira arrazoiak eta datuak; lehenengo, gorputzak erantzuten du.

Etorkizun hobe bat azaltzea zaila da: proposamenak, zenbakiak eta denbora behar ditu. Besteek irabazten badute zer galduko duzun azaltzea, berriz, askoz sinpleagoa da. Arazo bat erakutsi, arriskua handitu eta esan: lasai, nik konponduko dut.

Horrek ez du esan nahi arazoak asmatuak direnik. Etxebizitza, immigrazioa, autogobernua edo segurtasuna benetako kezkak dira. Kontua da nola kontatzen dizkiguten eta zer piztu nahi duten guregan.

Azaroaren 29an hauteslekura sartzen garenean, boto-paperarekin batera gauza gehiago eramango ditugu. Paper hori tolestu eta gutun-azal zuri batean sartuko dugu. Kanpotik, boto bat besterik ez da izango. Barruan, ordea, programa bat, promesa batzuk, esperientzia bat eta, agian, baita beldur bat ere.

29an, agian, beldurra izango da presidente.

**“Batzuentzat immigrazioa da arazoa, beste batzuentzat Euskadik erabakitzeko gaitasuna galtzea, eskubideetan atzera egitea edo ekonomiak okerrera egitea. Munstroa aldatzen da, baina logika ez horrenbeste"**

eta kitto!
euskara elkartea

Sarrerak egunean bertan Coliseoko leihatilan (8€)

Aner Peritz
Andoni Egaña
Irune Basagoiti
Xabat Illarregi
Aitor Etxebarriazarraga

Gai-jartzailea: Jon Mikel Mujika

# San-Andres

**2026/11/27**
**20:00etan**
**Coliseo EIBAR**

# Bertso jaialdia

# GOI ARGI, EMAKUMEEN ELKARGUNE ETA HERRIKO ONDARE

**Goi Argi 1951n sortu zuten Eibarren, emakumeek elkartzeko eta beren kasa jarduteko gune bat izan zezaten. Hiru mende laurdeneko ibilbidea egin du ordutik, eta emakumeen topagune izaten jarraitzen du. Belaunaldi berriak erakartzea eta elkartearen jarduna biziberritzea ditu, ordea, etorkizuneko erronka nagusi. Emakumeen elkartearen inguruko bideo-erreportajea landu du ...eta kitto!-k.**

Testua **IRATI ALVAREZ MALAXETXEBARRIA**
Bideoa **YANIRE SAGREDO HERNAEZ**

Kartak mahai gainean, solasaldia batetik bestera eta barre-algarak tarteka. Horrela egiten dute egunerokoa Goi Argiko emakumeek. 75 urteko ibilbidea duen elkarteak emakumeen topagune izaten jarraitzen du Eibarren. ...eta kitto! Susana Echeverria presidentearekin eta Edurne Egurrola eta Maribi Badiola zuzendaritzako kideekin bildu da, Goi Argiren oraina, iragana eta etorkizuna ezagutzeko.

1951n sortu zuten Goi Argi, frankismo betean, emakumeek gizartean parte hartzeko oztopo ugari zituzten garaian. Emakumeek emakumeentzat sortutako espazioa izan zen, eta Espainiako Estatuko emakumeen lehen elkartea izan zen. 75 urte geroago, ateak zabalik ditu oraindik: emakumeak elkartzeko, hitz egiteko eta bizipenak partekatzeko gunea da.

«Neretzako zailena da azaltzea zer den gaur egun Goi Argi eta zergatik jarraitu behar duen bizirik», azaldu du Susana Echeverria elkarteko presidenteak. Haren esanetan, emakumeentzako toki segurua da Goi Argi, eta ez da sozietate hutsa: «Instituzio bat da». Urteetako bizipenak eta emakume askoren historia biltzen dituela gogorarazi du. «Amamak ez dira amamak bakarrik; historia bat dute, eta haiengandik asko ikas daiteke».

### Mercedes Kareagaren ekimenez

Goi Argiren historia ulertzeko, ezinbestekoa da Mercedes Kareaga Guisasola ezagutzea. Haren ekimenez sortu zuten elkartea, emakumeek elkartzeko, ikasteko eta aisialdiaz gozatzeko espazio propioa izan zezaten. Kareaga ezagutu zuten emakumeek gogoan dute oraindik, eta haren izaera eta egindako lana nabarmendu dituzte. «Nobiorik ez izatia nahi zeban harek... neska zaharra!», gogoratu du batek, irribarrez.



Goi Argiko emakumeak elkartearen egoitzan.

> «Ez da emakumeen elkarte bat soilik. Goi Argi instituzio bat da.»
>
> *Susana Echeverria, Goi Argiko presidentea.*

BIDEO-ERREPORTAJEA IKUSTEKO:




**...eta kitto-ren bideo erreportajeko irudi bat.**

Beste kide batek, berriz, honela definitu du: «Niretzat emakume heroikoa izan zen Eibarren. Gutxienez, bere izena duen kale bat izan beharko luke!». Irakurtzeko zuen zaletasuna ere aipatu dute: «Harek badakizu zer egiten zeban? Irakurri asko. Eta asko irakurtzen dabenak asko ikasten dau».

Kareagaren ekimenetako bat San Juan bezperako tonbola izan zen. Urte luzez antolatu zuten, eta bildutako dirua gizarte-ekimenetara bideratzen zuten. Tonbolak leku berezia izan du Goi Argiren jardunean eta herriko emakumeen oroitzapenetan.

### Jendea eta laguntza behar dituzte

Goi Argiren eguneroko jardunaz eta elkartearen beharrez hitz egin dute Edurne Egurrola eta Maribi Badiola zuzendaritzako kideek. Jarduera gehiago antolatzeko gogoa dute, baina horretarako laguntza eta jendea behar dituztela azaldu dute. «Gehiago ez dugu egin, nahi dugu baina ez dugu laguntzarik, oso jende gutxi gaude gauzak mugitzeko... Gabonetan tonbola egin nahi dugu», adierazi dute.

Gabonetako tonbola antolatzea dute, beraz, buruan. Beste ideia batzuk ere izan dituzte azken urteotan; tartean, liburutegi bat jartzea. Proiektu horiek gauzatzeko, ordea, elkarteko kide gehiagoren eta antolaketa-lanetan lagunduko duen jendearen beharra dute.

## «Gehiago egin nahi dugu, baina ez dugu laguntzarik; oso jende gutxi gaude gauzak mugitzeko»

*Edurne Egurrola eta Maribi Badiola, zuzendaritzako kideak.*

### Etorkizunari begira, ateak zabalik

Goi Argiren etorkizunari buruz ere badute zer esana hiru emakumeek. Belaunaldi berriak erakartzea eta emakume gehiagorengana iristea dira mahai gainean dituzten helburuetako batzuk. Susana Echeverriak, esaterako, emakume gazteak elkartera gerturatzea nahiko luke, eta emakumeentzako aholkularitza-zerbitzu bat jartzea ere proposatu du. Horrez gain, adineko emakumeen bizipenak eta ezagutzak balioan jartzea aldarrikatu du.

Edurne Egurrola eta Maribi Badiolak ere elkartearen ateak zabaltzeko proposamen bat egin dute: zapatuetan irekitzea, bazkideek bikotekideekin, senideekin edo lagunekin joateko aukera izan dezaten. «Orain, zapatuetan zabaldu behar dala uste dogu, bazkidiak euren gizonekin edo famelixarekin edo kuadrillarekin etortzeko, mistua. Zapatuetan bakarrik, proba moduan», azaldu dute.

# Odisea, jokoaren paradisua

Pantailen eta bakartze digitalaren garaian, Odisea elkarteak aisialdi osasuntsu, sozial eta hezitzaile baten aldeko apustua egiten du. Bittor Sarasketa kaleko lokal berrian, mahai-, rol-, estrategia- zein karta-jokoek belaunaldi desberdinetako zaleak biltzen dituzte, komunitate sendo eta atsegina eraikiz.

Testua EKHI BELAR ERRASTI
Bideoa YANIRE SAGREDO HERNAEZ

Odisea elkarteak ibilbide azpimarragarria egin du bere egoitza propioa finkatzeko bidean. Hasierako garaietan Portalean elkartzen ziren, leku finkorik gabe, beren zaletasuna partekatzeko. 2017an Barrena kaleko lokal bat hartu zuten, baina espazio hura garajea zen lokala baino gehiago. Dena dela, ia hamar urte egin zituzten han, Bittor Sarasketan gaur egun duten lokala hartu arte. Aldaketak erabat eraldatu du elkartearen bizitza. "Lokala erosoa, argitsua eta atsegina da", Mikel Feijoo Odisea elkarteko presidentearen eta Ander De los Mozos zuzendaritzako kideen berbetan.

Horrez gain, Bittor Sarasketako kokapenak abantaila estrategiko handia du: tren geltokia oso gertu dago. Ezaugarri hori funtsezkoa da, Odisea ez baita eibartarrentzat soilik. Debako, Mendaroko, Zarauzko eta Ermuko kideak biltzen dira astero, eta garraio publikoak bidea errazten die kanpotik datozenei.





Nabarmentzekoa da, gainera, egoitza berria egokitzeko lan guztia bazkideen esku gelditu dela, inor kontratatu gabe. Hori bai, lekualdatzean jende askok lagundu zuela esan digute Odiseakoek.

Gaur egun 30 bazkide baino gehiago dira Odisean, eta beste bi kide berri sartzeko bidean daude, elkartearen osasuna eta hazkundea agerian utziz. "Nire iritziz, pixka bat gehiago ere izan gintezke", diosku Anderrek, baina biak pozik agertzen dira gaur egungo kopuruarekin.

Bera ere modu bitxian heldu zen elkartera: "Bi urte neramatzan jendearekin jolasteko leku baten bila eta ez zitzaidan bururatu Eibarren bilatzea, Eibarkoa izanda! Hainbat tokitan bila ibili nintzen: Donostian, Bilbon, Logroñon... Egun batean, La Sallen



**Odisea elkarteko kideak batez ere asteburuetan elkartzen dira jokoan aritzeko.** EKHI BELAR ERRASTI

egin zen ekitaldi batean, norbaitek esan zidan arratsalde hartan joko ekitaldi bat zegoela Errebalen, urtero egiten zena, eta nik ez nekien ezer. Orduan, hara joan nintzen eta Odisea deskubritu nuen. Horixe zen bila nenbilena".

Odiseak profil oso ezberdinetako pertsonak elkartzeko balio du, mahai-jokoen zaletasun komuna zubitzat hartuta. Etorkizunera begira, umeentzako jarduera zehatzak antolatu nahi dituzte joko zaharrak zein egokitutakoak berreskuratzeko, belaunaldien arteko lotura sendotzen jarraitzeko asmoz. Ander eta Mikel, adibidez, seme-alabekin joaten dira batzuetan. Bestalde, neskei dagokienez, bi bazkide besterik ez dituztela esan digute eta kopurua handitzea da euren helburua. Dena dela, herrian egiten dituzten zenbait ekimenetan emakumeen kopurua gizonena baino handiagoa izaten dela esan digute.

## >>> Barrenan hainbat urte egin ondoren, Odisea elkarteak Bittor Sarasketa kalean du egoitza berria

## >>> Gaur egun 30 bazkide baino gehiago ditu eta bertako kideak joko ezberdinetan aritzen dira

**Elkartearen funtzionamendua**

Elkartearen barne funtzionamendua elkarrekiko konfiantzan oinarritzen da. Bazkide guztiek daukate giltza eta nahi duten unean sartu daitezke. Dena den, mugimendu handieneko egunak barixaku arratsaldeak eta zapatuak izaten dira. Barixaku batzuetan mahai guztiak betetzen diren arren, beti egiten dute tokia datorren edonork jolasteko aukera izan dezan. Komunikazioa bideratzeko WhatsApp-en sortu duten komunitatea erabiltzen dute, Warhammer, rol-joko, mahai-joko eta bestelako azpitaldeekin.

Odisearen ezaugarri azpimarragarrienetako bat mailegu-sistema da. Elkarteak mahai-jokoen eta




**Ander De los Mozos (ezkerrean) eta Mikel Feijoo (eskuinean) Odisea elkartearen egoitzan.** EKHI BELAR ERRASTI

## >>> Urrian 'Ulisesen jokoak' izeneko ekimena egin zuten Errebalen eta ehundaka lagun elkartu ziren joko ezberdinetan aritzeko

## >>> Pantailen erabileraren aurrean beste alternatiba bat eskaintzen du Odiseak eta gero eta arrakasta gehiago du

rol-liburuen ludoteka zabala dauka. Liburutegi publikoen antzera, bazkideek jokoak etxera eraman ditzakete familiekin probatzeko. Jokoetan lehiakortasun osasuntsua egon daitekeen arren, giroa oso harmoniatsua da.

### Pantailei aurre egin eta euskara sustatu

Gaur egun pantailak orokortuta dauden arren, mahai-jokoek loraldia bizi dute. Anderrek honakoa diosku: “Bi alaba ditut, pantailen mundutik pixka bat atera nahi ditut eta mundu honek asko aberasten duela iruditzen zait; ez bakarrik jolas mailan, baita garapen interaktual eta pertsonalean ere. Pertsonen arteko harremanetarako askoz hobea iruditzen zaizkit sare sozialak, Interneteko jokoak eta bestelakoak baino”.

Beste alde batetik, Mikelek azaltzen du nola elkartearen ordezkaritza hartzeak bere bizitzan urrats garrantzitsuak egitera behartu duen. Jendaurrean hitz egiteak hasieran zalantzak eragiten zizkion arren, ariketa bikaina izan da beldurra gainditzeko. Gainera, bere euskara maila nabarmen hobetu dela azpimarratzen du. “Gaur egun, Udalarekin, kazetariekin eta ekitaldietan beti euskaraz hitz egiten saiatzen naiz”, diosku. Beraz, elkartea hizkuntzaren sustatzaile aktibo bihurtu da.

### Lokaletik jendaurrera

Odisearen jarduera ez da egoitzara mugatzen; herritarren gozamenera bideratutako ekitaldi publiko ugari antolatzen dituzte urte osoan zehar. Urteko hitzordu nagusia urriko 'Ulisesen Jokoak' dira, Errebal Plazan. Azken ekitaldian 380 txartel banatu zituzten bertaratutakoen datuak neurtzeko eta zozketak egiteko. Alabaina, askok txartelik hartu ez zutela kontuan izanda, parte-hartzaile kopurua 400 lagunetik gorakoa izan zela kalkulatzen dute, ikusleak zenbatu barik. Parte-hartze hori urtetik urtera hazten ari da, eta ahoz ahoko gomendioek bikain funtzionatzen dutela esan digute.

Ulisesen Jokoez gain, egutegia jardueraz beteta dago. Otsailean lehenengo ludoteka irekia egiten dute Errebalen; bigarrena Letras Galegas jaietan; eta hirugarrena sanjuanetan (Infinity txapelketarekin). Urteari amaiera emateko, azken ludoteka San Andres inguruan antolatzen dute. Aurten, ordea, hauteskundeak direla eta, Errebal Plaza ezingo da erabili azaroaren 28an, eta azken ludoteka abenduaren 19ra atzeratu dute, Errebaleko lehen solairuan egiteko. Parte-hartzea erabat irekia da, eta gehienak familiak zein nerabe kuadrillak izaten dira.

### Warhammerren gorakada

Odisearen ekintzek Euskal Herriko zein inguruko lurralde askotako zaleak erakartzen dituzte. Blood Bowl txapelketan Kantabriatik etorritako jokalari ugarik hartu zuten parte. Halaber, Warhammer txapelketa jendetsuek Bermeo, Bilbo, Barakaldo, Donostia eta Lekeitioko estrategak biltzen dituzte Errebalen. Odiseako kideen artean maila handia dagoela esan digute, Blood Bowl nahiz Warhammer jokoetan txapelketak irabazi dituzten bazkideak baitituzte.






**Mota ezberdinetako jokoak aurkitu daitezke Odisean.** EKHI BELAR ERRASTI

Azken urte hauetan Warhammer miniaturen jokoak ospe handia lortu du. Alde batetik, jokoa garatu duen enpresak txapelketa gehiago bultzatu dituelako; eta bestetik, Henry Cavill aktore ospetsuak unibertso honi buruzko telesail bat garatzeko proiektua abiarazi duelako. Aktorea bera jokalaria izateak oihartzun handia ematen dio zaletasunari.

BIDEOA

# “Idaztea bizitzeko modu bat da, munduari begiratzeko norberak duen talaia”

**LAURA MINTEGI** • Idazlea >>>

Ia hogei urteko isilunearen ondoren iritsi zen iaz Laura Mintegiren (Lizarra, 1955) azkeneko lana, “Akabo” (Txalaparta). Oraingoan, bikote-harreman baten zirrikituetan murgildu da idazlea, maitasuna, inkomunikazioa, traizioa eta botere-harremanak ardatz hartuta. Idazle, irakasle eta euskal kulturaren erreferente ezaguna den Mintegirekin, literaturaz, idazteko beharraz eta euskarazko irakurketaren egoeraz ere hitz egin dugu.

Testua eta argazkiak **MAIDER ARANBERRI SARASUA**

**Hilketa batekin hasten duzu liburua. Zergatik hain muturreko egoera kontaketa hasteko? Nondik sortu zitzaizun ideia?**

Nahiko intuitiboa izan zen. Ez nekien nola segituko nuen, baina banekien horrela hasi behar nuela. Une hori da nobela osoaren korapiloa, ardatza. Gerora dator garatzea pertsonaiak zergatik heldu diren muturreko egoera horretara eta, beste alde batetik, zer gertatuko den jazoera horretatik aurrera. Erdigunea den une hori, beraz, hasiera-hasieratik agertu nahi nuen, eta hortik aurrera tiraka joan atzera eta aurrera.

**Komunikazio eza eta isiltasunak dira liburuaren ardatzetako bat. Zer gertatzen da elkar ulertzeari uzten diogunean?**

Komunikazio ezak hoztasuna dakar, eta urruntzea. Komunikazioari uko egitea hausturaren lehenengo sintoma da, hitz egiteko eta, batez ere, entzuteko interesa galtzen delako. Bizitza-proiektua partekatu duten bitartean elkarri mintzatzeko eta elkar aditzeko beharrizana zuten, zerbait berria eraikitzen ari zirelako amankomunean. Baina kide batek bizitza-proiektuari eusteko interesa galtzen duenean, ez du esfortzurik egiten bere bizipenak partekatzeko eta, are gutxiago, hurkoarenak entzuteko.

Bikote baten kasua jarri dut, edonoren eskura dagoen esperientzia delako, baina berdin-berdin gertatzen da kolektibo batek bizitza-proiektua sortzen duenean artegintzaren arloan, zientziaren eremuan edo arlo politikoan. Proiektua abiarazten denean komunikazio intentsoa eta eskuzabala sortzen da partaideen artean baina, behin interesa galduta, kolektibotik desmarkatzen denak komunikatzeari uzten dio eta urrundu egiten da kolektibotik.

**“Inoiz baino komunikatuago gauden honetan, are eta nabarmenagoa da inkomunikazioa”. Zure hitzak dira. Zer esan nahi izan duzu?**

Teknikak baliabide ugari sortu ditu komunikatzeko, banan-banan, multzo zabalean, distantzia laburrean eta urrunean. Arazoa da komunikazioa ez dela norabide bakarreko mezu-jaurtiketa. Komunikazioa sortzeko ezinbestekoa da igorlea, uneren batean, entzule bihurtzea; eta, alderantziz, entzule izan denak igorle bihurtu behar du. Komunikazioak eskuzabaltasun dosi handia eskatzen du, prest egotea ulergarri egiteko adierazi nahi dudana, eta prest egotea, halaber, norbaitek adierazi nahi didana aditzeko, benetan aditzeko. Baliabide teknikoak eduki baditugu, baina gero eta eskuzabaltasun gutxiago sumatzen da solaskideen artean.




"Akabo" nobelarekin izan da euskarazko irakurketa taldean Laura Mintegi idazlea.

**Zerk pizten dizu idazteko gogoa?**

Jakinminak. Gai batek harrapatzen nauenean gehiago jakin nahi izaten dut gai horren gainean. Gaia ulertzeko pertsonaiak asmatzen ditut, eta pertsonaia horiek laguntzen didate ulertzen, beraien bizipenak deskribatzen ditudan heinean. Betidanik idatzi izan dut eta sumatzen dut inoiz ez diodala idazteari utziko. Bizitzeko modu bat da, munduari begiratzeko norberak duen talaia. Argitaratzea beste kontu bat da. Ez da zertan argitaratu idazten den guztia, irakurlearekiko errespetuagatik batez ere. Nobela bat egitea lan exigentea da, ordu asko eskatzen du. Badu afiziotik, baina ofiziotik ere badu. Sormena afizioa da, baina liburua egitea ofizioa da.

**Nolakoa izaten da zure idazketa-prozesua?**

Beti ez da berdina, nobela bakoitzak bere dinamika izan duelako. Guztietan gaia agertu da hasieran eta hortik tiraka sortu dira pertsonaiak eta, azkenean, trama edo argumentua sortu da. Nobela batzuetan titulua jakin izan dut, oraindik lerro bat idatzita ez neukanean. Beste batzuetan titulua asmatu ezinean ibili naiz hiruzpalau urtean idazten egon eta gero. Guztietan, baina, ez naiz konformatu erraz eta automatikoki atera den lehenengo esaldiarekin. Fikzioa egiten dut, baina ez da simulakroa. Ez da gezurra, egia bat dago literaturan, zintzotasunez idatziz gero eta norberaren buruari gezur txikirik esaten ez badizkiogu.

**Psikologian doktorea zara eta psikologiak eta psikoanalisiak presentzia handia dute zure literaturan. Psikologoaren begiradak laguntzen dizu idazterakoan?**

Psikologian doktoretza egin izanak ez nau psikologoa bihurtzen. Ez dut egin ikasketa-arauturik, autodidakta naiz. Nerabea nintzela hasi nintzen psikologia irakurtzen eta ez diot utzi. Ez dakit psikologiak literaturara eraman nauen, ala literaturak psikologiara. Edonola ere, ez dut ulertzen bata bestea gabe. Intentsitate berberaz bizi ditut biak.

**Euskaraz idazten duzu eta euskal literaturaren bilakaera gertutik ezagutu duzu. Euskal literatura osasun onean dagoela esango zenuke?**

Gaur egun lau idazle-belaunaldi ari dira idazten eta argitaratzen aldi berean. Euskal literaturaren historian, bost mendeetan, lehenengoz gertatu da egoera hau. Bestalde, azkenengo bi belaunaldiek ez dute premiarik izan hizkuntza beren kabuz beregana tzeko, esfortzu pertsonala eginez, euskaraz eskolarizatu direlako. Euskal literaturak ez du frogatu behar beste edozein literaturaren mailan dagoela,



**“Euskarak euskaldun egiten gaitu eta, ni-neu, idazle ere egin nau, gaztelaniaz inoiz ez bainuen argitaratuko”**

**“Emakume idazleok segitzen dugu sentitzen `gurea´ ez den espazioan sartzen `uzten´ digutela, maizter beti ere, ez andre eta jabe”**

“homologazioa” lehenengo belaunaldi hauek egina dutelako. Euskal literaturak osasun ikaragarri ona du. Sistema literarioa, ordea, ahula da. Baina horretan ere “homologatuta” dago inguruko sistema literarioekin. Areago, euskarazko sistema hobeto dagoela esango nuke, atzean komunitate linguistiko kontzentziatuta duelako.

**Nerabezaroan ikasi zenuen euskara, eta euskal literaturaren erreferenteetako bat zara. Nolakoa izan da eta da zuk aukeratutako hizkuntzarekin harremana?**

Euskarak euskaldun egiten gaitu eta, ni-neu, idazle ere egin nau, gaztelaniaz inoiz ez bainuen argitaratuko. Euskara ikasten hasi nintzenean idazteari utzi nion, eta dezente kostatu zitzaidan barne-mundua amahizkuntza ez zen beste hizkuntza batean adieraztea. Gaur egun, aldiz, ezin izango nuke literatura, nire literatura, gaztelaniaz idatzi, euskarak nire mundua zeharkatu duelako alderik alde. Ez naiz bakarra. Beste askok egin dute bide bera. Finean, indar handiagoa du erabakimenak kanpotik ezarritako baldintzak baino. Edozein egoerari eman dakioke buelta, norberak halaxe erabakiz gero.

**Emakume idazle gisa ibilbide luzea duzu. Zer-nolako bilakaera sumatu duzu emakumeen presentzia-ri dagokionez? Aukera gehiago dituzte emakumeek gaur egun lanak argitaratzeko?**

Emakumeen sarrera masiboa literaturan konparatu liteke kontinente berri baten deskubrimenduarekin geologiaren eremuan. Emakume protagonistak, emakume begiradak, emakume erritmoa, emakumearen neurriari egokitutako espazioak eta esaldiak, ekarpen handia dira literaturarentzat. Hala ere ez dezagun gure burua engaina. Euskal literaturan emakume idazleok lehen %15a baginen, orain %35a gara. Egia da ikusgarritasuna handitu dela, eta argitaletxeek areagotu dutela presentzia hori, baina interes komertzialengatik baldin bada, ikusgarritasuna etorri den moduan joango da. Literaturan, beste arlo guztietan bezala, ez dago berdintasunik. Intelektualen artean mikromatxismoak sotilagoak dira, baina badira. Eta emakume idazleok segitzen dugu sentitzen “gurea” ez den espazioan sartzen “uzten” digutela, maizter beti ere, ez andre eta jabe.

**Zer ari zara irakurtzen? Gomendiorik?**

Garazi Arrularen “Dakigun hori” nobela ari naiz irakurtzen, oso gustura. Eta hainbat liburu ditut zain. Liburuarekin batera denbora-bono bat saldu beharko ligukete.



MIKEL ARRILLAGA

# Astoa eta zaldia

Igandean mendira joan nintzen ia astero bezala. Asto txiki beltza neukan bide ertzetik begira-begira, "Nor ote da tipo hau?" esaten bezala. Orduan gelditu, agurtu eta unean buruan nerabilenaren berri eman nion: "Hi, ba al dakik zer esaten duten? Bizkaian EH Bilduk irabaziko dituela hauteskundeak azaroaren 29an". Astoak bi pauso atzera egin eta arrantza erako barre luzea egin ondoren, bere burua lurrera bota, buelta hartu eta mugitzen hasi zen, hankak goraka jarrita, algara betean. Grazia egin ziola, alegia. "Kontxo, ez da ba horrenbesterako ere, inkestek hala badiote... Antza denez, Oiz aldera ez da heldu Bizkaiko EAJren krisiaren berririk". Azkenengo esaldi hori neure baitan esan nuen, bidean gora nindoala.

Pozik eman nituen hurrengo pausoak goiz eguzkitsu bezain haizetsuan, burutazioarekin asmatu nuelakoan. Ze, beste pentsamendua azaldu izan banio, bertan suizidatzeko ere kapaz hura! Zer egingo ote zuen esan banio, PPk eta VOXek sekulako aukera daukatela gehiengo osoa lortzeko? Ez dut pentsatu ere egin nahi, Praixku gaixoa. Astoari izen hori jarri nion.

Zaldi gorrikara zoragarria zegoen hirugarren eolikoaren zutabearen inguruan. Hango belar apurra jaten ari zen, gixajoa, eta begira gelditu nintzaion miresmenez. Aspaldian euririk egin ez eta jana urri bezain garesti zeukan bazterretan. Burua altxatu, eta begira jarri zitzaidan animalia, ile txuri luzeak lepo gainean. Urte batzuk izango zituen neure antzean. Zer burutazio nerabilen antzeman, eta halaxe esan zidan: "Zuek ere ibili erne! Eskumako horiek irabazten badute, laster harriak jaten hasi beharko duzue eta!"

"Politikari asko oporretan joango balira, eta hauteskunde egunean itzuli, bozka gehiago jasoko lukete", bota zidan Praixkuk beheranzkoan, belar gorriztatik burua altxatuz. "Feijoo baietz", erantzun nion. Horrek ez zion horrenbesteko barregurarik eragin. San Andres egunean hitz egitekotan gelditu ginen, eta autorantz jarraitu nuen.

**"Politikari asko oporretan joango balira, eta hauteskunde egunean itzuli, bozka gehiago jasoko lukete"**



## Amaia Gorostizak kargua laga du eta Jon Ander Ulazia da SD Eibar-en presidente berria

**E.B.** Hamar urtez klubaren buru izan ostean, Amaia Gorostizak SD Eibar-en presidente izateari laga dio. Klubaren arabera, "Gorostizaren agintaldian epe luzerako ikuspegia eta kudeaketa zorrotza izan dira ardatz, SD Eibar erakunde sendo eta jasangarri gisa finkatzeko helburuarekin".

Hamar urte hauetan, SD Eibar-ek bere oinarri instituzionalak indartu eta hainbat proiektu estrategiko bultzatu dituela dio klubak. Horien artean, Areitioko Kirol Hiria nabarmentzen da, klubak bere jabetzan duen lehen ondare handia. Klubak azpimarratu du Gorostizak antolakuntza sendoa eta etorkizunari bermeekin aurre egiteko prestatua uzten duela, gertutasunean, gardentasunean eta erantzukizunean oinarritutako lan-kulturarekin.

Presidentetza Jon Ander Ulaziak hartuko du, azken urteotan klubaren proiektuaren garapenean funtsezko eginkizuna izan duen kontseilari delegatuak. Gainera, kontseilari delegatu izateaz gain, LaLiga-ko bigarren presidenteorde ere bada.

## Beste derbi bat asteburuan F Ligako taldearentzat

**E.B.** Joan den zapatuan Realaren aurka luzapenean galdu ondoren, F Ligan jokatzen duen SD Eibar-ek Alavesen aurka jokatuko du bihar, 18:00etan, Mendizorrotzan.

Eibarrek bost partida daramatza garaipenik lortu gabe eta denboraldi hasieran lortutako abantaila murrizten doa poliki-poliki. Dena dela, taldea sailkapeneko lasaitasun postuetan dago oraindik, 9. postuan hain zuzen ere, 12 punturekin. Hla ere, 4 puntura ditu jaitsiera postuak, atzetik hainbat talde dituen arren.

## Kopan aurrera eginda, Ligan du burua Eibarrek

**E.B.** Gizonezkoen SD Eibarrek martitzenean jokatu ahal izan zuen, azkenik, CD Pamplonaren aurkako partida. Eibartarrak 0-3 nagusitu ziren eta, horrela, Kopako hurrengo kanporaketarako sailkatu dira.

Orain, Hypermotion Ligako jardunaldi berrian dute burua eta Cadiz hartuko dute Ipuruan, domekan, 18:30ean. Eibartarrak 4. postuan daude 23 punturekin.

## Universitario Bilbao taldeari irabazita, lidergoaren bila doa Eibar Rugby Taldea

**E.B.** Partida bakarra galdu eta hiru irabazita, sailkapenaren 2. postuan dago orain eta lau puntura du Complutense Cisneros liderra.

Azkenengo partidan Universitario Bilbao izan zuten arerio eibartarrek eta 24-12 gailendu zitzaien. Bizkaitarrak hasi ziren partida irabazten, baina Eibar Rugby Taldeak markagailuari buelta ematen jakin zuen eta lehen zatia amaitu baino lehen neurketa erabakita laga zuen.

Hurrengo jardunaldian, Eibar Rugby Taldeak Pingüinos Rugby Burgos taldeari egingo dio bisita, azaroaren 22an, 12:00etan jokatuko den partidan. Burgosko taldea sailkapenaren azken postuan dago, beraz, liderrari presioa sartzeko aukera ona dute eibartarrek.





# Eibar Saskibaloiko taldeek garaipen gutxi eskuratu zituzten asteburuan

**E.B.** Gizonezkoen 1. mailako taldeak, Artesanos Juantxok, porrota jasan zuen Casa La Riojaren aurka (86-42), eta emakumezkoen 2. mailako taldeak ere egaldu egin zuen Lana Aloña Mendiren aurkako partiduan (79-22). Gainera, senior mutilen 3. mailako taldeak 35-60 galdu zuen Askatuak Gipuzkoaren kontra.

Harrobiko taldeei dagokienez, junior mailan, mutilek garaipena lortu zuten Oiarso-ren aurka (63-50), eta emakumezkoen juniorrek ere garaipena eskuratu zuten Erroibideri irabazita (21-47). Kadeteetan, 2011ko mutilen taldeak garaipena lortu zuen Innovachefen aurka (34-40), baina 2012koek porrota jasan zuten Internacional Mons-en kontra (20-95), eta emakumezkoek ere estu galdu zuten Plastigaurren aurka (28-34). Infantiletan, mutilen talde nagusiak Revidacell Hondarribiaren aurka galdu zuen (16-57), baita infantil txiki emakumezkoek ere Ordizia Txiki Lacturaleren kontra (5-48).

## Mendi korrikalarien entrenamendua mintzagai

**E.B.** Beñat Agirreurreta prestatzaile fisikoak mendiko korrikalarien entrenamenduen inguruko hitzaldia eskainiko du datorren azaroaren 19an, ostegunean, Deporren egoitzan. Hitzordua 18:30ean izango da, eta mendiko korrikalari izan nahi dutenentzat antolatu dute. Agirreurreta errendimendura eta osasunera bideratutako prestatzaile fisikoa da, eta mendi korrikalaria izateko beharrekoak diren entrenamenduen inguruan jardungo du.




## ASTEBURUKO AGENDA

### FUTBOLA

**Emakumezkoen 1. Maila**
Alaves - EIBAR (bihar, 18:00)

**Gizonezkoen 2. Maila**
EIBAR - Cadiz (etzi, 18:30)

**Emakumezkoen 2. Maila RFEF**
Racing - S. EIBAR B (etzi, 12:00)

**Gizonezkoen 2. Maila RFEF**
Amorebieta - EIBAR B (bihar, 16:00)

**Erregionaleko Ohorezko Maila (gi)**
URKI - Aloña Mendi (bihar, 18:00)

**Erregionaleko Gorengo Maila (gi)**
Soraluze - EIBARTARRAK (gaur, 20:30)

**Jubenilen Nazional Liga (gi)**
Romo - SD EIBAR (bihar, 19:30)

**Jubenilen Euskal Liga (gi)**
URKI - Arenas (bihar, 12:30)

### FUTBOL-ZALETUA

- Malape - Bergara Pn. (bihar, 09:00)
- Adahi Etx. - Athlete T. (bihar, 09:00, goian)
- Xania - Garajes Garcia (bihar, 10:30)
- Bar Marem - Kalaka Bs. As. (etzi, 09:00)
- Limpiezas Rueda – Baserri (etzi, 10:30)

### ESKUBALOIA

**Zilarrezko Maila (em)**
Malkaitz - EIBAR ESKUBALOIA (etzi, 12:30)

**1. Maila Nazionala (gi)**
Usurbil - EIBAR ESKUBALOIA (bihar, 19:30)

**Seniorren Euskadiko Liga (gi)**
Zarautz - EIBAR ESKUBALOIA B (bihar, 17:30)

**Seniorren 1. Lurraldekoa (em)**
Urola - EIBAR ESKUBALOIA B (etzi, 10:45)

### WATERPOLOA

**2. Maila (gi)**
Manresa - URBAT (bihar, 12:00)

**Euskal Herria Liga (gi)**
Lautada - URBAT B (etzi, 12:30)

### ERRUGBIA

**Euskal Liga (gi)**
Rioja - ERT (bihar, 16:00)

### SASKIBALOIA

**Gipuzkoako 1. Maila (gi)**
ARTESANOS J. - Oiarsolezo (bihar, 14:30)

Kirol albiste gehiago
gure webgunean



# Eibartarrak nagusi Euskal Herriko Hiru Txirlo Txapelketako 4. jardunaldian

**E.B.** Joan den zapatuan Euskal Herriko Hiru Txirlo Txapelketaren laugarren jardunaldia jokatu zen Bergarako San Joxepe bolatokian eta eibartarrak izan ziren jaun eta jabe.

Asola Berri taldeko Garikoitz Rodriguez izan zen irabazlea zortzi txirlorekin eta bigarren Ganix anaia sailkatu zen zazpi txirlorekin.

Hirugarren postuan San Miguel taldeko Xabier Loiola izan zen sei txirlorekin eta laugarren beste eibartar bat, Bergara taldearekin jokatzen duen Anartz Esteban. Bosgarren Asier Azkarate taldekidea sailkatu zen eta seigarren San Migel taldearekin jokatzen duen Jon Ibarluzea eibartarra.

Txapelketaren bosgarren jardunaldia Markinako Barinaga bolatokian jokatuko da, bihar, azaroak 14. Finala jokatu aurreko azken tiraldia izango da.

## Bergara Pneumatikoak sendo futbol zaletuan

**E.B.** Futbol zaletuaren ligako 6. jardunaldia jokatu zen asteburuan, Unben. Bergara Pneumatikoak liderrak nagusitasun osoa erakutsi zuen bere partidan eta 1-7 gailendu zitzaion Limpiezas Rueda taldeari.

Atzetik Malape Taberna du, bakarrik orain, atzean utzi baititu Xania Taberna eta Garajes Garcia. Hain zuzen ere, Malapek 2-1 irabazi zion Garajes Garciari eta Xaniak 4-5 galdu zuen Bar Maremen aurka.

Bihar, zapatua, lehen bi sailkatuek elkarren aurka jokatuko dute, 09:00etan.

**SAILKAPENA**

1. Bergara Pneumatikoak, 18 puntu
2. Malape Taberna, 13 puntu
3. Xania Taberna, 10 puntu
4. Garajes Garcia, 10 puntu
5. Adahi Etxegi, 9 puntu
6. Kalaka Buenos Aires, 7 puntu
7. Bar Marem, 6 puntu
8. Athlete Terraza, 6 puntu
9. Limpiezas Rueda, 3 puntu
10. Baserri, 3 puntu



# 132 eibartarrek hartu zuten parte Behobia-Donostia lasterketan

**E.B.** Milaka korrikalari batu zituen domekan jokatu zen probak; hain zuzen ere, 27.172 lagun irten ziren Behobiatik (29.301 lagunek eman zuten izena) eta 26.947 korrikalarik amaitu zuten proba.

Tartean 132 eibartar izan ziren, baina denek ezin izan zuten proba amaitu. Eibartarren artean Xabier Adot izan zen azkarrena eta 76. postuan helmugaratu zen, 01:09:41 denborarekin. Bere atzetik sartu ziren Mikel Arriola (136. postuan, 01:11:52) eta Aitor Bastida (179. postuan, 01:12:47).

Lehen emakume eibartarra Aitziber Urkiola izan zen (1419. postuan, 01:24:01), bigarrena Paula Alberdi (2442. postuan, 01:28:29) eta hirugarren Paula Pereira (3276. postuan, 01:28:29).

Eibartarren sailkapena



## Eibar Igerixaneko alebinen emaitza bikainak Gipuzkoako Ligako 2. jardunaldian

**E.B.** Mohammed Mokaddem lehenengoa izan zen 200 metro estiloetan eta 100 metro tximeletan, eta bigarren postua eskuratu zuen 75 metro bizkarrean Ariane Valenciaga ere podiumera igo zen bitan: lehenengoa izan zen 200 metro bizkarrean eta hirugarrena 200 metro estiloetan. Noa Amestik 50 metro tximeletako proba irabazi zuen; Luka del Rio hirugarren izan zen 150 metro estiloetan, eta Paule Martin hirugarren 200 metro bizkarrean.Erreleboetan ere garaipena lortu zuten eibartarrek. Alazne Avellanedek, Ariane Valenciagak, Noa Amestik eta Paule Martinek osatutako emakumezkoen 4x100 metro libreko taldeak lehen postua eskuratu zuen. Eibar Igerixaneko benjaminen taldeak, bestalde, denboraldiko lehen neurketa izan zuen Oñatiko Zubikoa kiroldegian.

Hurrengo hitzordua Paula Calvorentzat izango da. Igerilari elgoibartarra Madrilen izango da azaroaren 13tik 15era, Espainiako Absolutu Txapelketan parte hartzeko.

## Asier Cuevas lasterketa jokatuko da bihar

**E.B.** Lasterketa nagusia 18:00etan hasiko da eta parte-hartzaileek 7,5 km-ko ibilbidea osatu beharko dute, Toribio Etxebarrian hasi eta amaitzeko, Eibarko Klub Deportiboaren egoitzaren parean. Horrela, hiru buelta emango diote zirkuitu bati: Toribio Etxebarria – Untzaga – Fermin Calbeton – Plaza barria – Bidebarrieta- Karmen kalea – Barakaldo – Urkizu – Arragueta – Errebal – Julian Etxeberria - Toribio Etxebarria.

Aurretik, 17:00etan, Asier Cuevas Txikia jokatuko da, umeek parte hartu dezaten.Lasterketaren antolatzaileek esan dutenez, 150 lagunek eman dute izena dagoeneko. Dena dela, oraindik zabalik dago izena emateko epea eta, horretarako, sailkapena.com webgunean apuntatu edo Eibarko Klub Deportibora joan beharko da gaur, 19:00etatik 20:00etara. Parte hartzeko 15 euro ordaindu beharko dira eta gehienez 250 lagunek hartuko dute parte. Gainera, antolatzaileek dutxak jarriko dituzte parte-hartzaileen eskura, Ipurua kiroldegian.


### Nelly Goin Iriondo

**1. URTEURRENA**
2025/11/07

**"Ze handia den utzi diguzun hutsunea! Beti biziko zara gure bihotzetan"**

- ETXEKOAK -



### Maria Dolores Barruetabeña Ostolaza

2026/11/11

**"Zenbat kafe goxo, atsokeri eta demanda, azkenean ahizparekin bere urtebetzea ospatzera joateko. Patxo bana"**



# “Portalekoa ilusio gehien egin didan erakusketa izan da, New Yorken egindakoak baino gehiago”

**VANESSA ATECA** • **Margolaria** >>>

Portalean urriaren amaieran zabaldu zuen erakusketa aprobetxatuta Vanessa Ateca barne-diseinatzaile eta artista eibartarrarekin solasean aritu gara. ‘Materia emozionala’ da erakusketaren izena eta azaroaren 29ra arte egongo da ikusgai, martitzenetik domekara 18:30etik 20:30era.

Testua EKHI BELAR ERRASTI

Erakusketak bi unibertso nagusi uztartzen ditu: batetik, dekorazio abangoardistara zuzendutako bilduma abstraktua, eta bestetik, aurpegi eta erretratu femeninoa ardatz duten lan garaikideak. Guztira 22 obra biltzen dituen erakusketa honek indar handia eta emozio positiboak transmititzea du helburu, ikuslea bere barne-mundura eta irudimenera erakarriz.

**Erakusketaren ateak zabalik daude orain dela aste batzuetatik. Zer aurkitu dezakegu barruan?**

Bi bilduma mota aurkitu ditzakegu bertan. Batetik, bilduma abstraktua daukagu, barne-diseinatzaileekin gehiago landu dudana dekorazio abangoardistago baterako. Eta gero, alderdi garaikidea, emakumezkoen aurpegiak eta erretratuak biltzen dituena. Horrez gain, boligrafoz egindako lan batzuk ere baditut; hiru lan dira boligrafoz, eta bakoitzak hunkitzen ninduten hiru artista irudikatzen ditu: Massena, Okuda eta azkenik Gaudí (arkitektoa izan arren, artista aurreratu bat zen). Beraz, 22 obra daude guztira.

**Denbora asko daramazu artearen munduan. Nola hasi zen harreman hori?**

Txikitatik hasi zen. Eskolan beti egoten nintzen erretratuak marrazten... Beti izan naiz erretratularia. Tatuatzailea ere izan naiz, 25 urtez. Erretratularia izaten hasi nintzen, eta ondoren... Bestetik, barne-diseinua ikasi nuen, baina banekien ez nintzela horretara bideratuko. Karrerako azken urtean ez nuen aurrera jarraitu eta arlo artistikoari heldu nahi izan nion. Orduan, tatuatzeari eta margotzeari ekin nion, eta bizitza osoa daramat bi gauza hauek egiten.

**Margotzeak eta tatuatzeak gauza komunak dituzte, baina ezberdinak dira aldi berean. Nola osatzen dira edo nola adierazten zara batean zein bestean?**

Egia esan, tatuajeetan nire estiloa oso islatuta geratzen da, bertan ere idazkiak egiten ditudalako. Beti egin izan dut horrela, eta jendeari asko gustatzen zaio. Egin ohi dudanaren berdina da... Aurpegi asko ere egiten ditut, erretratu ugari. Azkenean, dena lotuta doala iruditzen zait. Kontua da abstrakzioan askeago sentitzen naizela, asko gustatzen zait. Baina batzuetan gustatzen zait alderdi garaikideari heltzea eta aurpegiak abstraktuekin apurtzea ere; bi gauzak nahasten ditut. Urteak eman ditut abstraktuki margotzen, eta azken bi urteotan arte garaikidearekin ibili naiz gehiago.

**Zure lanekin, zerbait probokatu nahi duzu ala bakoitzaren interpretaziora uzten duzu? Edo gauza biak?**



**Azaroaren amaierara arte egongo da ikusgai Vanessa Atecaren erakusketa Portalean.** EKHI BELAR ERRASTI

Azkenean, artea ikuslearengan emozio bat sortzen duen mugimendua da. Bilatzen duzuna da... emozio positibo bat piztea, noski. Beraz, nire obra osoak indar handia izatea bilatzen dut, eta zerbait transmititzea; koadroaren barruan sartzea eta sentitzea, ez izatea besterik gabe konposiziorik gabeko margoketa abstraktu bat.

**Nolakoa da artetik bizitzea? Asko mugitu beharra dago?**

Bai, asko! 2007an hasi nintzen barne-diseinatzaileekin lanean. Gero, galerien munduan murgiltzen hasi nintzen: Osloko azokan, Louvrekoan, New Yorken, Oporton, Madrilen, Bartzelonan... Lehen mailako galerietan eta nazioarteko azoketan egon naiz. Horretara iristeko, zera egin behar duzu funtsean: lehenik eta behin, sarrera ekonomiko bat bermatuko dizun beste lan bat izan. Zer gertatzen da? Nazioarteko azoka batera joateko edo galeria batean sartzeko, ordaindu egin behar duzula. Zer lortzen duzu trukean? Curriculum izugarria. Baina inbertitu egin behar duzu. Zergatik? Galeria ona bada bezero-kartera oso zabala duelako, eta biek obra saltzeko lan egiten dutelako. Apustu bat da; zuk ordaindu egin behar duzu haiek ere saldu dezaten eta beren % 50a jaso dezaten, eta irabazten duzunarekin berriro beste galeria batean egoteko aukera duzu.

**New Yorken, Parisen edota Oslon izandako esperientzia horiek, zer eman dizute?**

Oso polita izan da, jende asko ezagutu baitut. Baina urte batzuetan lagata eduki dut, tatuajearen munduan murgilduta egon naizelako gehiago. New York eta Eibar artean bizi izan naiz zortzi urtez. Orain berriro margolaritzara eta galerietara itzuli naiz, baina beste modu batera.

**Eibarren erakusketa hau egitea zer izan da zuretzat?**

Egia esan, ilusio gehien egin didan erakusketa izan da. New Yorken egindakoak baino gehiago! Hemen inoiz ez nuen erakusketarik egin. Asko gustatu zait etxean egitea. Alkatea, zinegotzia eta lagun ugari hurbildu dira, eta oso pozik nago. Aretoa bera zoragarria da; argia, espazioa... jendeak asko baloratu du. Jendearen erantzuna zoragarria izaten ari da.

**Elkarrizketa osoa: WWW.ETAKITTO.EUS**



## Gau Beltzaren giroa dantzara eraman zuten Errebalen

**S.H.** Eibarko Udal Dantza Eskolak dantza ikuskizun berezia eskaini zuen urriaren 30ean Errebal Plazan. Arimen mundua eta Gau Beltzaren iruditeria izan zituzten ardatz koreografiek. Dantza Eskolako kide guztiek hartu zuten parte ekimenean, adin guztietako dantzariak (4 urtetik hasita, 60tik gorakoetara) bilduta. Guztira 15 koreografia aurkeztu zituzten, Arianna Macheras, Miren Ferrero eta Jule Gisasolaren eskutik (Argazkia: Irati Ayerza).



## Adineko andren ahotsa aldarrikatzeko saioa

**S.H.** Altzoa elkarteak, Eibarko Berdintasun Sailaren laguntzarekin, *Amonak gara, baina ahotsa altxatzen jarraitzen dugu. Etorkizuna diseinatzen jarraitzeko itxaropena* hitzaldia antolatu du azaroaren 17rako (martitzena), 17:30ean, Torrekua gizarte zentroan. Coral G. de las Heras berdintasun-aholkulariak adineko andrek bizi duten adinagatiko eta generoagatiko diskriminazio bikoitza landuko du, baita zaintza-lanetan duten rola eta gizartean erabakitzeko eta parte hartzeko duten eskubidea ere. Ondoren, solasaldia egingo dute. Sarrera doakoa eta irekia izango da.



## Euskal Herri osotik etorritako dantzarien topaketa Eibarren

**S.H.** Euskal Herriko 40 herritako 65 dantzazale, aditu eta aritu bildu ziren azaroaren 7an Eibarren, Markeskua jauregian, euskal dantzaren alorreko gaurkotasuneko eta intereseko gaiak jorratzeko topaketan. Dantzan elkartearen ekimenez burutzen diren topaketak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Dantzagunearen babesean antolatzen dira, eta aurtengoak bosgarrenak izan dira.

Antolatzaileen berbetan, "euskal dantzaren osasunaren eta aniztasunaren erakusgarri izan da jardunaldietan izandako parte hartzea, adin, dedikazio eta joera anitzak elkartu baitira Eibarren, bai eta jatorri ugariak ere" (Argazkia: Josu Garate).



## Diabolo-tailerra emango dute gaur Muzategin, dohainik

**S.H.** Eibarko Kulturaren eskutik, doako diabolo-tailerra eskainiko dute gaur arratsaldean, 17:30etik 19:30era Muzategi plazan (Indianokua gaztelekuaren aldamenean). Zirkozaurre konpainiakoak arituko dira diaboloarekin malabareak nola egin nahi duten guztiei irakasten.



## Eibarko hiru ikertzaile gazte ‘Zientzia-zubiak’ ekitaldian

**S.H.** UEUk, Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Unibertsitatea eta Berrikuntza Sailaren laguntzaz, *Zientzia-zubiak* ekimena egingo du Eibarren, *ikerl(h)ari* ildoaren baitan. Ekimen honen helburua ikertzaile gazte euskaldunak ezagutaraztea da, bai eta zientzia herritarrei hurbilaraztea ere. Lehenengo solasaldiaren grabaketa 10:30ean hasiko da, Armeria Eskolako areto nagusian, eta hiru ikertzaile eibartarrek hartuko dute parte: Mikel Albizuri Gomez, Izaro Fernandez Iriondo (argazkian) eta Nora Santos Loyola. UEUk herritarrak gonbidatu ditu ekitaldian parte hartzera. Bertaratu nahi dutenek aurrez izena emateko mezua bidali beharko dute komunikazioa@ueu.eus helbidera.



## AEK Euskaltegiak Ipuruan ospatuko du Gaztainerre

**S.H.** AEK euskaltegikoek Gaztainerre ospatuko dute aurten ere. Eibarko ohiturari jarraituz, Arima Egunaren osteko bigarren astelehenean, azaroaren 16an izango da ospakizuna: Xania tabernan elkartuko dira, 19:00etan, handik abiatuta kantu-kalejira egiteko. Aurten Ipurua auzoan ibiliko dira, Argatxako Kitto tabernan, eta dorre azpian dagoen Terrazan. Gaztainerre beraiekin batera ospatu nahi duten herritar



## Maila goreneko gonbidatua Santa Zezilia kontzerturako

**S.H.** Eibarko Musika Bandak kontzertu berezi batekin ospatuko du Santa Zezilia eguna azaroaren 22an (domeka), 12:30ean Coliseo antzokian. Andoni Vazquez zuzendariak aurreratu duenez, egun horretan Cecilia de Montserrat C. A. biolontxelo-jotzailea izango dute lagun: I. Serranoren *Tramonto* piezan bakarlari arituko da. Eskainiko dituzten beste piezak hauek dira: A. Dvoraken *Danza Eslava Nº1* eta *Danza Eslava Nº8,* Soutulloren *La leyenda del beso,* eta J. P. Moncayoren *Huapango*. Gonbidapenak eskuragarri daude Kutxabank-en eta antzokiko leihatilan.

## Hitzordu bikoitza antolatu dute Ipuruako Merkatu Plazan




**S.H.** Bihar (zapatua, azaroak 14) hitzordu berezia izango dute Ipuruako Merkatu Plazan, “arteaz, marrazketaz eta musikaz gozatzeko”, Maite Arriaga artista eibartarraren eskutik: bere gidaritzapean, Jam Marrazketa saioa egingo dute, 19:00etatik 21:00etara, eta modelolanetan Zuriñe Ormaetxe arituko da. Zuzeneko musika, berriz, Izarrek eskainiko du (blues, soul, jazz...). Saioan parte hartzeko ez da ezer ordaindu behar, doan da.

Eta hurrengo egunean (azaroak 15), Rafael Villanueva idazleak *Herba Vitae* bere eleberria aurkeztuko du Ipuruako Merkatu Plazan, 12:30ean.

## SUDOKUA

ERRAZAGOA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 5 | | | 7 | 8 | | |
| 4 | | | | 8 | | 3 | | |
| | | | 1 | | | | | 2 |
| | 6 | 4 | 3 | 7 | | | | |
| 1 | | | | | | | | 3 |
| | | | | 1 | 9 | 4 | 2 | |
| 8 | | | | | 2 | | | |
| | | 3 | | 6 | | | | 5 |
| | | 9 | 5 | | | 7 | | |


| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 9 | 1 | 5 | 2 | 3 | 7 | 8 | 4 | 6 |
| 4 | 7 | 2 | 9 | 8 | 6 | 3 | 5 | 1 |
| 3 | 8 | 6 | 1 | 5 | 4 | 9 | 7 | 2 |
| 2 | 6 | 4 | 3 | 7 | 5 | 1 | 8 | 9 |
| 1 | 9 | 7 | 4 | 2 | 8 | 5 | 6 | 3 |
| 5 | 3 | 8 | 6 | 1 | 9 | 4 | 2 | 7 |
| 8 | 5 | 1 | 7 | 9 | 2 | 6 | 3 | 4 |
| 7 | 4 | 3 | 8 | 6 | 1 | 2 | 9 | 5 |
| 6 | 2 | 9 | 5 | 4 | 3 | 7 | 1 | 8 |


| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 3 | 6 | 5 | 2 | 9 | 8 | 7 | 4 |
| 7 | 4 | 9 | 8 | 1 | 6 | 3 | 5 | 2 |
| 2 | 8 | 5 | 3 | 7 | 4 | 1 | 6 | 9 |
| 8 | 6 | 1 | 9 | 4 | 3 | 5 | 2 | 7 |
| 5 | 7 | 3 | 1 | 6 | 2 | 9 | 4 | 8 |
| 9 | 2 | 4 | 7 | 5 | 8 | 6 | 3 | 1 |
| 3 | 5 | 7 | 4 | 9 | 1 | 2 | 8 | 6 |
| 6 | 1 | 8 | 2 | 3 | 7 | 4 | 9 | 5 |
| 4 | 9 | 2 | 6 | 8 | 5 | 7 | 1 | 3 |

ZAILAGOA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 9 | 1 | | | | | |
| 5 | | | | | 3 | | 2 | |
| | 3 | 4 | | 5 | 7 | | | 6 |
| 3 | | | | | | 7 | 6 | |
| 1 | 8 | | | | | | 3 | 9 |
| | 7 | 6 | | | | | | 2 |
| 7 | | | 2 | 1 | | 6 | 8 | |
| | 2 | | 4 | | | | | 3 |
| | | | | | 5 | 2 | | |

## LABIRINTOA





# Azaroak 13 / Azaroak 19

## BARIXAKUA 13

**BARIXAKUAK JOLASIAN**
**17:00** Bi eta zortzi urte bitarteko umeentzako doako egitasmoa, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Txaltxa Zelai.

**TAILERRA**
**17:00** "Dastaketa eta berbalagun espazioak", Gaztesafaren eskutik. Portalea (3. pisua).

**ZIRKU-TAILERRA**
**17:30/19:30** Zirku-tailerra, Zirkozaurreren eskutik: Diaboloak. Dohainik. Muzategi plaza (Indianokua gaztelekuaren aldamenean).

**HAUSNARKETA-SAIOA**
**18:00** Gizonen arteko konplizitatearen inguruan hausnartzeko saioa, gizonentzat. Arrate Kultur Elkartea.

**MUSIKA KLUBA**
**19:00** "Lagunak Sessions. Catalunya Harmonica Summit" (Blues Hotsak 2026). 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

**EKITALDI POLITIKOA**
**19:00** Hauteskunde kanpainaren hasiera-ekitaldia, EH Bilduren eskutik. Parte-hartzaileak: Oskar Matute, Oihana Etxebarrieta, Gorka Elejabarrieta, Maddalen Iriarte eta Iker Eizagirre. Errebal Plazia.

## ZAPATUA 14

**SANANDRESAK**
**10:00** San Andres Eskolarteko XXII. Bakailao Lehiaketa. Errebal Plazia.

**ANTZERKIA**
**17:00** "Ardatzak" (Zirkozaurre). 5 euro. Coliseo.

**HERRI-LASTERKETA**
**18:00** XIII. Asier Cuevas Herri Lasterketa. Aurretik, 17:00etan, Asier Cuevas txikia, Eskola Kiroleko haurrekin. Toribio Etxebarria kalea (Depor parean).

**JAM MARRAZKETA**
**19:00/21:00** Jam Marrazketa, Maite Arriagak antolatuta. Musika: Izar (blues, soul, jazz...). Modeloa: Zuriñe Ormaetxe. Doan. Ipuruako Merkatu Plaza.

**KOMEDIA FEST**
**21:00** "Despotorre" umorezko ikuskizuna, Ane Lindane eta Raquel Torresen eskutik. 22 euro (16 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

## DOMEKA 15

**IRTEERA**
**10:00** Saguzar-kutxak jartzeko irteera, Salbadorrera, Urkizutik abiatuta**. 12:00** Hamarretakoa. Eibarko Baso Biziak-ek antolatuta.

**LIBURU AURKEZPENA**
**12:30** Rafael Villanuevaren "Herba vitae". Ipuruako Merkatu Plaza.

## ASTELEHENA 16

**GAZTAINERRE**
**19:00** AEK euskaltegiaren eskutik kalejira eta ondrajanak, Ipuruako tabernetan, Gaztainerre ospatzeko. Xania tabernatik abiatuta.

## MARTITZENA 17

**ZIENTZIA-ZUBIAK**
**10:30** "Zientzia-zubiak" bideopodcastaren zuzeneko grabaketa. Sarrera librea. Armeria Eskola (areto nagusia).

**BIDEO-FORUMA**
**17:00** "Emakumeen Istorioak", Pagatxaren bideoforum feminista: Nagore Laffage (gaztelaniaz). Sarrera librea. Andretxea.

**KONFERENTZIA**
**17:30/19:00** "Amamak beraien ahotsekin", Coral G. De las Heras-en eskutik. Antolatzailea: Altzoa alargunen elkartea. Torrekua gizarte zentroa.

## EGUAZTENA 18

**AGURTZEN**
**18:00/20:00** Aurretiazko borondateei buruzko informazio-zerbitzua, Ikasten-en eskutik. Untzaga gizarte etxea (Arrate aretoa).

## EGUENA 19

**HITZALDIA**
**10:00/12:00** "Andra nagusiak eta mendia", Ane Zubiaren eskutik. Ikasten-ek antolatuta. Sarrera librea. Armeria Eskola (areto nagusia).

**ATE-IREKIAK ETA HITZALDIA**
**15:30/18:30** Ate-irekien jardunaldia, Minbiziaren Aurka Gipuzkoan elkartearen 10. urteurrena ospatzeko. **18:30/19:30** "Osasuna egunero eraikiz". Hizlariak: Jon Madinabeitia (kirol-hezitzaile fisikoa), Lukas Hoskin (nutrizionista) eta Maider Sierra (prebentzio psikologoa). Minbiziaren Aurka Gipuzkoan elkartearen lokala (Ardantza, 11).

**HITZALDIA**
18:30 "Mendi korrikalaria izan", Beñat Agirreurreta prestatzailearen eskutik. Eibarko Klub Deportiboa.

## ERAKUSKETAK

**Azaroaren 29ra arte**
**"BUNA: Etiopiako emakumeen ahotsak eta erresilientziak" argazki-erakusketa. Andretxea.**
**Azaroaren 29ra arte**
**Indalecio Ojanguren XXXIX. argazki lehiaketa. Saritutako argazkiak eta edizio honetako parte-hartzaileen selekzioa).** Portalea (erakusketa aretoa).

**Azaroaren 29ra arte**
**"Materia Emozionala", Vanessa Atecaren pintura-lana.** Portalea (erakusketa aretoa).

**Urtarrilaren 10era arte**
**"Industria, berrikuntza eta mugimendua", G.A.C. enpresaren mendeurrenean.** Armagintzaren Museoa.

# ZINEA **COLISEO**




**"Cómo robar un banco"**
*THRILLER. AKZIOA*

2026/AEB/122'
Zuzendaria: David Leitch
Aktoreak: Nicholas Hoult, Zoë Kravitz, Pete Davidson
**Lapurretak. Sare sozialak**

**1** ARETOA
- **14an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **15ean:** 17:00, 20:00

ANTZOKIA
- **16an:** 19:30




**"Sacamantecas"**
*THRILLER (J.B.O)*

2026/Espainia/109'
Zuzendaria: David P. Sañudo
Aktoreak: Antonio de la Torre, Patricia López Arnaiz, Josean Bengoetxea
**Historikoa. XIX. mendea**

**2** ARETOA
- **15ean:** 20:00

**1** ARETOA
- **16an:** 19:30




**"Ruega por nosotras"**
*DRAMA*

2026/Espainia/136'
Zuzendaria: Daniel Monzón
Aktoreak: Zoe Bonafonte, Manuela Calle, Adelfa Calvo
**Benetako gertaeretan oinarritua. 70eko hamarkada**

**2** ARETOA
- **14an:** 19:30, 22:30
- **15ean:** 17:00
- **16an:** 19:30

ANTZOKIA
- **15ean:** 20:00




**"Superthings. Filma" (euskaraz)**
*ANIMAZIOA. KOMEDIA*

2026/Espainia/93'
Zuzendaria: Víctor Monigote
**Superheroiak**


**2** ARETOA
- **14an:** 17:00

ANTZOKIA
- **15ean:** 17:00




## Arrate Arizmendi Murguiondo

2026/11/04



**Beti maiteko zaitugu**

- ETXEKOAK -

**www.etakitto.eus**
zorion-agurrak

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu aldizkarian eta gure webgunean. Informazioa guri helarazteko bi aukera daude: FORMULARIO bat betetzea ETAKITTO.EUS webgunean (QR-aren bidez sartu zaitezkete), edo presentzialki gure bulegoan. Argazki arrunta: 4 euro. Bikoitza; 8 euro (%20ko deskontua elkarteko bazkideentzat)



Zorionak **MOHAMMAD**! Urriaren 28xan 7 urte bete zenduazen. Asko-asko maite zaittugu.



Zorionak **JULEN**! Astelehenian, hillak 16, 5 urte eder betetzen dozuz eta! Jarraittu horren alai eta jator! Musu erraldoi bat etxekuen partez.



Zorionak **NAHIKARY**! Hiru urte, neska haundi! Musu potolo bat famelixaren partez. Ayara, ama eta aitak asko maite zaittugu.



Zorionak **PAULE**! Azaruaren 14an 5 urte beteko dozuz eta. Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, aitxitxa eta amamaren partez.



Zorionak **LOREA**! Martitzenian 9 urte haundi bete zenduazen. Jarraittu beti bezain alai eta jator. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak **ETXAHUN**! Martitzenian 9 urte bete zenduazen eta. Patxo haundi bat etxekuon partez.



Zorionak **IRATI**! Etxeko txikixenak 2 urte bete dittu! Izugarri maite zaittugu, txapelduna. Musu pilla bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak **AMA**! Famelixa guztiaren partez. Egun politxa pasa. Asko maite zaittugu.



Zorionak **ENEKO**!! Astelenian 7 urte bete zenduazen!! Patxo handi handi bat familixan partez!



Coro
Zubicaray Aguirregabiria
**12. URTEURRENA**
2014/06/23

Calixto
Ulacia Beristain
**5. URTEURRENA**
2021/11/20

*"Beti egongo zarete gure bihotzetan"*

- ALABAK: ITZIAR, AMAIA ETA NEREA ETA FAMILIA -

# Iragarki laburrak

943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

**1. ETXEBIZITZA**
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa

**2. MOTORRA**
2.1. Salgai

**3. LOKALAK**
3.1. Salgai
3.2. Errentan
3.3. Konpartitzeko

**4. LANA**
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila

**5. IRAKASKUNTZA**
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak

**6. DENETARIK**
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.2. Errentan

- Gizonezko langile eta arduratsuak Eibarren logela alokatuko luke, epe luzerako egonaldirako. 722 565 179 (Vladi).
- Neska bat logela bila dabil alokairuan hartzeko Eibarren edo Elgoibarren. 640540638.

## 4. LAN BILA

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak zaitzeko, interna edo orduka. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 680526228.
- Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak edo haurrak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. 631483249.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko, garbiketa lanetarako, eta dendari edo zerbitzari bezala lan egiteko. Esperientziarekin. 601500665.
- Emakumea eskaintzen da goiz eta arratsaldez umeak zaintzeko. 640050714.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanetarako. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 604 12 01 04.
- Gizona eskaintzen da eraikuntzako peoi bezala, ostalaritzan sukaldeko laguntzaile bezala, garbiketa lanetarako edota autoen garbiketarako. 642986250.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna, lanaldi osoa eta asteburuak barne. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 632292662.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko. Baita garbiketa eta apal-betetzaile lanetarako ere. Esperientzia eta ziurtagiriarekin. 631462540.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko. Baita garbiketa lanetarako ere. Esperientziarekin. 641969140.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko. Baita garbiketa edo zerbitzari lanetarako ere. 607826589.
- Emakumea eskaintzen da, esperientziarekin, pertsona nagusiak zaintzeko. Berehala hasteko moduan. 614567818.
- Emakumea eskaintzen da, esperientziarekin, pertsona nagusiak zaintzeko. Berehala hasteko moduan. 612284265.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko, zein garbiketa eta etxeko lanetarako. Edozein ordu eta egunetan. 641 78 12 29
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko. Baita garbiketa lanetarako ere. Edozein ordu eta egunetan. 642829497.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko. Ziurtagiri soziosanitarioa eta esperientziarekin. 641955434.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Astelehenetik ostiralera goizez. 614603605.
- Emakumea eskaintzen da aste barruan garbiketa lanak egiteko eta asteburuetan nagusiak zaintzeko. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 614464957.
- Emakumea eskaintzen da zaintza lanetan orduka lan egiteko. Esperientzia eta ziurtagiri soziosanitarioarekin. 632415374.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko. 624418937.

### 4.2. Langile bila

- Eskulan dendak saltzailea behar du Bilbon, Gabon azokan lan egiteko. Telf 943204000.

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.2. Eskaintzak

- Marrazketa eta pintura klaseak ematen dira, haur zein helduentzat. Goizez eta arratsaldez. 646238458.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

### 5.3. Eskaerak

- Irakaslea behar da Batxilergo 1-eko ikasle bati matematika, fisika eta kimikako klaseak etxean emateko. 636686040.
- Euskara irakaslea behar da DBH 3ko ikasle bati eskola partikularrak emateko. 65373 5874, 13:00etatik aurrera deitu.

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

- Umeak eramateko City Mini markako aulkia salgai. 4 erroberaduna. Poltsa eramatekoa barne. 85 euro. 650113060.

# GREMIOEN GIDA

## ANTENAK


Ego Gain, 2 - Bac
Tfnoa. 943 12 73 50
www.trinmer.com
trinmer
TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK


## ELEKTRIZITATEA


THELECER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
24 orduko urgentziak
610 532 922 www.thelecer.com


## KRISTALAK


ACHA Kristaldegia
J.A. GISASOLA, 4 - ac
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
info@cristaleriaacha.com
eta faxa:
943 203 903


## AROTZAK


ulmar S.L.
aluminiozko eta PVC-ko
AROZTEGIA
balta toldoak, gortinak, estoreak etabar
Txanta, 30 - 1. eta behea
Tfnoa: 943 12 13 67 www.ulmar.net


## IGELTSEROAK


Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza
irazabal
Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobeaz
goza dezazun
Azitain Industrialdea, 3 H Pabilicio
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net


## PINTURAK


IÑAKI
pinturak eta lurrak
Tel. 647 902 208
Bidebarrieta, 21 - behea


## ITURGIÑAK


Arriaga
iturgintza
Arragueta, 2 Bis
943 20 20 34
adm.arriagu@gmail.com
681 24 28 35

# BM

# Etxeko produktua, etxeko jendearentzat.

**Azaroaren 12an berriro irekiko dugu Eibarrek merezi duen denda.**

Denda ikaragarria, berritua eta auzokideen mailan egoteko pentsatua.



Askatasunean hazitako oiloen arrautzak, soltean.



Tenperatura baxuan prestatutako eta ontziratutako arrain freskoa.



Joseba Arguiñanoren ogi-aukera.



Kalitaterik oneneko haragia, haragia ontzeko ganberan.



500 erreferentzia baino gehiago dituen upategi zabal-zabala.

Julian Etxeberria, 14–16.